

2007KO MAIATZAREN 23KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko maiatzaren hogeita hiruan, eguerdiko hamabietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Juan Manuel Serna Portugal.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Angel Olaso Villalba zinegotziak bere ezin etorria aurrez adierazi du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren adierazten du hutsegitez Eguneko Gai Zerrendan Lazkao Lantzen, S.A.ren 2006ko kontuak puntua sartu gabe gelditu zela eta hau horrela presakazko izaeraz eguneko gai zerrendan sartu eta gai hau tratatzea planteatzen dela.

Denak ados agertzen dira gai hori tratatzearekin.

I.- AURREKO AKTAK.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2007ko apirilaren 28an egindako ez-ohiko eta 2007ko maiatzaren 8an egindako ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSKAKETAN ZUZENKETA.-

azkaoko Udala Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa ari da izapidatzen. Izapidatze horren barruan espedienteak bere azken fasean aurkitzen da, hain zuzen Diputaziora bidalita dago honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan. Hau honela eta dokumentuan akatsak somatu direnez, akats horien konponketa da bere onarpenerako osoko bilkurara aurkezten den proposamen honen helburua.

Udal Osoko Bilkurari proposatzen zaiona Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskapen espedienteko Hirigintza Arauak, Arau Partikularrak dokumentuan 6 HJA "ITURGAITZAGA" fitxa akatsduna izen bereko konpondutako fitxarengatik aldatzea da.

Udal Osoko Bilkurak, proposamena aztertu ondoren, bertaratutako bere 10 partaideen aldeko botuekin, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskapen espedientean, Udal honek behin behineko onarpena 2006ko irailaren 28an emandakoan, Hirigintza Arauak, Arau Partikularrak dokumentuan 6 HJA "ITURGAITZAGA"ren fitxa akatsduna konpondutako fitxarengatik aldatzea. Fitxa hau bere espedientean aurkitzen da.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari akordio honen berri eman eta aldatutako fitxa bidaltzea han duen dokumentuan ere ordezkapena egin dezan.

IV.- LAZKAO LANTZEN, S.A.REN 2006KO KONTUAK.-

Jarraian Osoko Bilkurara aurkezten dira Lakao Lantzen, S.A.ren 2006ko kontuak bere onarpenerako. Kontu hauek Lazkao Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluak onartuak izan dira, gaur bertan bilkura honen aurretik egin den bilkuran.

Lazkao Lantzen, S.A.ren kudeaketa daraman ESARBE, S.A.ren ordezkari batek kontu hauen azalpena egiten du.

Udal Osoko Bilkurak, azalpenak entzun eta kontuak aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Lazkao Lantzen, S.A.ren 2006ko kontuak onartu egiten ditu.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, eguerdiko hamabiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.